

UPV/EHUN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2021:

I. eta II. Modalitateak ***Emateko erabaki berriak ukoengatik eta errakuntzen zuzenketengatik***

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak argitaratu zuen

UPV/EHUN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2021: I. eta II. Modalitateak

Behin eskaerak ebaluatzeko izapidea amaituta, errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen onartu eta ukatutako eskaeren behin-behineko zerrenda.

Horren ondoren, 10 eguneko epea izan zuten eskatzaileek egoki iruditzen zitzaizkien alegazioak adierazteko.

Izapide horiekin amaitu ondoren, eta Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) bileran aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, erabaki zen agintzea errektoreordetzaren web atarian onartu eta ukatutako eskaeren behin betiko zerrenda argitaratzeko.

Hala ere, alde batetik, errakuntzak atzeman dira PIF 21/148 eskariaren azken puntuazioan, II. modalitatearen 5. Irizpidean, eta PIF 21/186 eta PIF 21/117 eskarietan, I eta II modalitateetarako 2 eta/edo 3. ebaluazio irizpideetan. Bestetik, behin betiko emate erabakia zuten hautagaien uko berriak gertatu dira, hauek guztiak I. modalitatean, PIF 21/71 (79009581G), PIF 21/264 (21006935T), PIF 21/249 (15396345F) eta PIF 21/302 (3310074249841) eskarietan. Bi arrazoiongatik, egokia da eman eta ezetsitako eskarien zerrenda berriz ordenatzea.

Era berean, ebatzi gabe geratu zen PIF 21/269 eskariaren inguruan legezko epean eta eran aurkeztutako alegazioa. Berori ezetsi egin da, ez baita elementu objektiborik aurkitu, eskaria berriz ere, partzialki edo osorik, ebaluatzea lekarkeenik.

Beste alde batetik, Estatuko Ikerketa Agentziaren Koordinazio eta Ebaluazio Azpialak PIF 21/59 eskaria oraindik ebatzteke duelarik, erabaki da plaza bana esleitu gabe uztea I. eta II. Modalitateetan, ebazpen horren emaitza zein den eta, ordezko gisa, jarri da, azken esleipendunaren puntuaziotik gertuen dagoen eskatzailea.

KONTRATAZIORAKO DOKUMENTUAK AURKEZTEA:

Kontratazio eta Prestakuntzarako Baliabideen Gestioaren Ataleko lankideak emandako berriekin jarriko dira harremanetan eta hauek **2022ko apirilaren 29ra arte** bidali beharko dituzte, e-mail bidez, kontratazio dokumentuak PDF formatuan, helbide honetara: rrhh-inves.dgi@ehu.eus

Gero, dokumentazio hori aurkeztu beharko dute UPV/EHUko Erregistro Orokorrean.

Leioan, 2022ko apirilaren 13an

INMACULADA AROSTEGUI MADARIAGA
Ikerketaren arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Investigación